

12. IBARRA GALTZAKOMIK

Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarra Udalararekin elkarlanean, 12. Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa iragartzen du. 2019a **Hizkuntza Indigenen Nazioarteko urtea** delarik, desagertzeko arriskuan dauden munduko jatorrizko hizkuntzen aldarrikapena egin nahi da edizio honetan.

OINARRIAK

Edonork parte hartu dezake. Gaia librea izango da baina, 16 urte bitartekoen lanek desagertzeko arriskuan dauden munduko hizkuntzen egoerak oinarri izan beharko dituzte (bizikidetza, nortasunaren aldarria ingurune eleanitzean eta kulturartekotasunaren aberastasuna bezalako balioak jorratzeko aukerei atea irekiz).

Ez da onartuko eduki sexista edo arrazista duen komikirik edo dena delako arloan intolerantziatzko jokabiderik eragin dezakeenik. Lan guztiak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute, autoreak berak sortutakoak.

Lehiaketa honen helburu nagusia euskarazko komikigintza sustatzea izanik, ez da komiki muturik onartuko. Lanak euskara hutsean aurkeztu behar dira, eta erabilitako euskararen bizitasuna kontuan hartuko da.

Lehiaketan jatorrizko lana aurkeztu behar da, baita ordenagailu bidez sortu edo tratatuak izan direnak ere. Aurre diseinatutako irudiekin egindako lanak bazterturik geratuko dira; Comic Book Creator, TBO, Comic Life, Comic Master edo antzerako programetako aurre diseinatutako irudiekin egindakoak.

Irudi digitalizatuen kasuan, orri bakoitzeko inpresio bat aurkeztu behar da, A-4 neurrikoa eta, gutxienez, 300 ppp-ko kalitatekoa. Lan bakoitzak A-4 neurriko lau orri izango ditu gehienez, eta istorio bakarra zein anitza aurkeztu ahal izango dira.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEA



Ibarra
Udala

BABESLEAK



GALTZA KOMIK

LANAK NON ETA NOIZ

Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aurkeztuko dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira:



Galtzaundi Euskara Taldea
"Galtzakomik komiki lehiaketa"
Nafarroa etorbidea 6, behea
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko azken eguna 2019ko azaroak 25 izango da. Korreosen egun horretan aurkeztutako gutunak ere onartuko dira. Komiki lehiaketan jasotako lanekin erakusketa antolatuko da, abenduaren 13tik 20ra, Ibarako Kultur Etxean. Erakusketa amaitu ondoren, 30 eguneko epean, sarituak izan ez diren lanak jasotzeko aukera egongo da. Epea bukatu eta gero, eskatuak izan ez diren lan guztiak Galtzaundiren artxibora pasako dira.

NOLA AURKEZTU

Aurkeztutako komikian autorearen izenik ezin da jarri. Gutun-azalean aurkeztuko dira lanak, sinadura eta izenik gabe, izenburu batekin. Autorearen datuak (izena, telefono zenbakia, adina, helbidea, helbide elektronikoa eta komikiaren izena) beste gutun-azal batean aurkeztuko dira, lanaren izenburu berarekin. Bigarren gutun-azal hau lehenengoan sartuta aurkeztu behar da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Egile bakoitzak sari bakarra eskura dezake. Adituek osatutako epaimahai batek lanik onenak aukeratuko ditu, ondoko irizpideak kontuan hartuta: istorioaren zuzentasuna eta ulermena, marrazkiaren bizitasuna eta originaltasuna, idazmena eta marrazketarako erabili den materiala eta teknika.

Komikien kalitatearen arabera, epaimahaiak sariak moldatu edo eman gabe utzi ditzake.

ZOZKETA

Mahala baserriko produktuak zozketatuko dira sari banaketara gerturatzen diren eta sarituak izan ez diren parte hartzaileen artean.

SARI BANAKETA

Sari banaketa 2019ko abenduaren 13an, 19:00etan, Ibarako Kultur Etxean egingo da.

Saria eskuratzen dutenek nahitaez sari banaketa ekitaldira etorri beharko dute, pisuzko arrazoiren bat ez bada tartean.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du*. Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago Galtzaundin (943 655 004, galtzaundi@galtzaundi.eus, www.galtzaundi.eus) eskuratu daiteke.

* Datu Pertsonalak Babesteko arautegia betez, jakinarazi nahi dizugu zure datu pertsonalak Galtzaundi Euskara Elkartearen fitxategietan jasoko direla lehiaketa hau kudeatzeko, elkartearen legezko betebeharrak burutzeko eta zure interesekoa izan daitekeen informazioa bidaltzeko. Datuak epe zehatzik gabe kontserbatu izan daitezke. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, baimen zehatza ematen diozu elkarteari zure datu pertsonalak tratatzeko. Hamalau urte ez badituzu zure gurasoen baimena behar duzu zure datu pertsonalak emateko (lehiaketan parte hartzeak hauen baimena duzula esan nahi du). Sariduna gertatzen bazara baimen zehatza ematen diozu elkarteari zure datuak lehiaketaren web gunean eta Galtzaundik erabiltzen dituen komunikabide edo/eta euskarri desberdinetan argitaratzeko eta zabaltzeko (bai paperez bai baliabide elektronikoak erabilia). Zure datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita tratamenduari aurka egiteko ere. Era berean, emandako baimena edonoz ezeztatu dezakezu, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako elkartera jo beharko duzu, helbide honetan: Nafarroa etorbidea 6, 20400 Tolosa (Gipuzkoa) edo posta elektronikoko honen bitartez: galtzaundi@galtzaundi.eus. Zure eskariari emandako erabakiarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol aginte eskudunera jo dezakezu, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

SARIAK

12 urtetik behera:

1. Saria:

100€ + komiki bilduma

2. Saria:

Komiki bilduma + marrazketarako materiala

5 Aipamen:

Komiki bilduma bana

Ibarako komikirik onena:

Opari txeketa + komiki bilduma

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez*

13 urtetik 16 urtera:

1. Saria:

200€ + marrazketarako materiala + komiki bilduma

2. Saria:

100€ + komiki bilduma

2 Aipamen:

Komiki bilduma bana

Ibarako komikirik onena:

Opari txeketa + komiki bilduma

**Saridun guztiak Xabiroi aldizkarira harpidetuko dira urtebetez*

17 urtetik gora:

1. Saria:

700€ + bi lagunentzako afaria

2. Saria:

300€ + bi lagunentzako afaria